

INDUSTRIA PRODUKZIOKO INDIZEA, 2018ko APIRILA


Euskal AEko industria-jarduerak % 0,5 egin zuen behera 2018ko apirilean

Industria-produkzioako indizeak % 2,6ko hazkundera metatu izan du 2018ko lehen lauhilekoan

EUSTATEk landutako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioak % 0,5 egin zuen behera apirilean, lan-egutegiko termino homogeneoetan, 2017ko apirilarekin alderatuta. 2018ko lehen lau hiletako balantzean, ikus daiteke % 2,6ko hazkunderarekin itxi dela lehen lauhilekoa, 2017ko aldi berarekin alderatuta.

Aurreko hilarekin, hau da, 2018ko martxoarekin, alderatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa % 3,3 jaitsi zen, behin urte-sasoiko ondorioak zuzenduta.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2018ko apirileko indizearen bilakaerak, 2017ko apirileko indizearen aldean, oso bestelako emaitzak eman ditu industria-sektore handietan. *Ekipo-ondasunak* % 4,3 hazi dira, baina *Energiak* % 3,0 egin du behera eta *Bitarteko ondasunak* % 1,8. *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 4,8 egin dute behera. Horien barruan, *kontsumo-ondasun iraunkorrek* baldintzatzen dute beherako maila handi hori, % 13,7 egin baitute

behera; izatez, *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* askoz ere beherakada txikiagoa izan dute (% 1,3).

Hilen arteko aldakuntzari erreparatuta, 2018ko apirilaren eta 2018ko martxoaren arteko aldakuntzak bilakaera negatiboak ditu industria-sektore handi guztietarako, salbu *Energiarako*, ez baitu aldakuntza adierazgarririk izan (% 0,0). *Bitarteko ondasunek* % 3,4 egin dute behera, *ekipo-ondasunak* % 0,5 jaitsi dira eta *kontsumo-ondasunak*, oro har, % 4,1 egin dute behera —*kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 9,9 jaistearen eta *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* % 1,8 jaistearen ondorioz—.

Urte arteko aldakuntzei erreparatuta, euskal industrian pisu gehien duten sektoreen artean, 2018an hauek egin dute gora: *Garraio-materialak*, % 6,2, *Makineria eta tresneriak* % 2,5 eta *Metalurgiak eta metal-produktuek* % 0,6.

Aitzitik, sektore hauetan gertatzen dira beherakadarik handienak: *Zura, papera eta arte grafikoak*, urte arteko beherakada % 5,7koa da; *Material eta tresneria elektrikoa*, % 4,8 jaitsi da; eta *Elikagaien industriak, edariak eta tabakoa*, % 2,2ko beherakada.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	0,6
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-0,5
09 - Kautxua eta plastikoak	-2,1
13 - Makineria eta tresneria	2,5
14 - Garraio-materiala	6,2
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-2,2
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-4,8
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-5,7

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurralde historikoen arabera, industria-produkzioa indizearen apirileko urte arteko bilakaera positiboa izan da Gipuzkoan —% 5,4 egin du gora—, baina Araban % 2,1 egin du behera eta Bizkaian % 5,0 egin du behera.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2018ko Apirila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Api2018 / Api2017	A(Api2018) / A(Api2017)(*)	Api2018 / Mar2018	Mar2018 / Ots2018
Indize orokorra				
Euskal AE	-0,5	2,6	-3,3	1,1
Araba/Álava	-2,1	2,5	-3,1	2,4
Bizkaia	-5,0	-1,0	-4,1	-1,3
Gipuzkoa	5,4	6,5	-2,6	2,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-4,8	-1,5	-4,1	1,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-13,7	-1,6	-9,9	2,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-1,3	-1,4	-1,8	1,0
Ekipo-ondasunak	4,3	4,1	-0,5	2,1
Bitarteko ondasunak	-1,8	2,1	-3,4	1,7
Energia	-3,0	4,8	0,0	-2,3

(*) 2018ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2017eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62